

# Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)

FRANCISCO ONDARRA<sup>1</sup>

## SARRERA

**A**ldizkari honetan bertan (*Ik. Fontes*, 53. z. (1989), 97-144 or.) argitaratu ditugu sei euskal testu *Goñerriko Munarritzen* aurkituak eta orain ezagutzen ematen ditugunekin eta beste askorekin bilduma bat osatzen dutenak. Guzti hauen berri labur bat ematen dugu Euskaltzaindiaren agerkaria den *Euskera-n*, 1981. urtean, 349-365 eta 633-649 orrialdeetan, argitaratuak dauden seiak 354. or. eta 10. sailean aipatzen direla, eta oraingo laurok 646.or. an aitatzen diren 43-46 sermoiak direla.

## TESTUAK

Testu bakoitza lau orrikoa da, orrialde guztiak bete-beterik daudela. Zenbatu gabe eta hari zuri mehez josiak zeuden, hari paska batzuk 3. testuan bakarrik gordetzen direla orain. Paperaren neurriak batez-bestе hauek dira: 1. testuan 211 mm. luze eta 153 zabal; besteetan 207 eta 149.

*Ur markak* hauek dira:

1. testuan I BRVN / BEARN eta hiru zirkulu bata bestearen gainean marrazturik, goiko bi zirkuluetan gurutze bana dagoela. Erdiko zirkuluaren parean ezkerrean FIN dago, eta eskuinean 1760 edo, ez gaudelarik seguru 6 dioen edo 3 edo 5. Goiko zirkularren ezker-eskuin esku antzeko bi marraski.

2. testuan BEARN / I BRVN / (beste zerbait). Gainera hiru zirkulu, goikoaren gainean hiru gurutze altxatzen direla; eta behekoaren ezkerrean FIN eta eskuinean urtea, ezin dugula hau irakurri.

3. eta 4. etan BEARN / MONTAVBAN / LAINEZ (-Z ote?) eta hiru zirkulu bata bestearen gainean. Badago zerbait horien goitik eta beitik.

Lau prediku dira, abenduko lau igandeetarako prestatuak eta igande horiek kontutan harturik guk ordenatuak.

1. Filologian Lizentziatura.

## NOR, NON ETA NOIZ

*Nor* da egilea? Uste dugunez misionistaren bat da, beraz fraideren bat. Honetakoak esaten ditu: «aqui saco el Santo Christo», 1,4at.; «saca el santo Christo», 4,4at.; «Jangoicoaren ordenaz nator abisazera ezen zaudela condenacioco estadoan», 4,4; «nere auditorio onetaco Jende guztioi», 3,1.

Gainera, ez dugu ahaztu behar abendurako izan zirela prestatuak.

Bestalde, gerta daiteke guk begien aurrean ditugun predikuak ez izatea autoreak idatzi zituenak berak. Esan nahi dugu kopiagile baten lana izan daitekeela, eta euskaraz idazten ohitura haundirik ez duenarena. Nola idatz liteke bestela «Ó Nelachen», 4,3 «onelachen»en ordez?

Badakigu, José María Satrustegui-ri esker, prediku hauek behin eta berriz izan zirela kopiatuak eta aprobetxatuak. Egia osoa esateko eta zehatzago izateko, erantsi behar dugu kopiagile bakoitzak zenbait esaldi ezabatu, beste zenbait sartu, morfologiari ukiturik eman eta hitz baten partez besteren bat erabili bazkiela egiten.

Lau testuok idatzi zituena eta J.M. Satrusteguik bere *Euskal Testu Zaharrak* (ETZ) liburuan, 63. orrialdetik aurrera argitaratu zuenaren idazlea edo kopiatzailea bat-bera da: esku berbera eta euskara berbera. Gauza bera baieztautu behar da gure lan honen hasieran aitatu den *Fontes-en*, 103. orrialdetik aurrera ageri den testuaren aldaki bat den eta aipatutako euskaltzainak jakitera eman digun beste bati buruz. Gurea honela hasten da:

«Proponizen digu Euangelista Sagraduac S(a)n Lucasec bere irugarren capituloan, predicacea becatoreai penitencia bere becatuena, orrequin medio onetas izandaitezen barcatuac bere becatu guciac» (103. or.).

Bestea, esandako euskaltzalearena, honela da hasten:

«Proponizen digu Euangelista Sagraduac S(a)n Lucasec bere irugarren capituloan predicazen (sic -n) pecadoreai penitencia bere pecatuena, orrequin medio onetaz izanditezen barcatuac bere pecatu guziac».

Gure testuan honela hasten da bigarren paragrafoa:

«Desazen (sic -sa-) dudela bada nic zuen animen salbacioa obligacio duden bezala, nai dizquizutet proponitu, zer diligenciaquin irdisten den penitencia eguiasco bat, orrequin guardazen dituzutela, gueldidadin becatorea izuliric Jangoicoaren graciara» (103. or.).

Besteak honela dio:

«Deseazen dedala bada nic zuen animen salbacioa obligacio dedan bezala, nai dizquizutet proponitu, zer diligenciaquiñ alcanzacen dan penitencia eguiazco bat, orrequin guardazen dituzutela, gueldidin pecadorea izuliric Jangoicoarean graciara».

Gureak honela dio hondar paragrafoko bukaera aldean:

«Catholicoac órañic baduzute dembora eguiteco zuen becatuen penitencia confessio ñon eguiasco batequin» (107. oc.).

Besteak berriz honela:

«Catholicoac orañ (sic) badezute denbora eguitecoz zuen pecatuen penitencia confessio on eguiasco batequiñ».

ETZ liburuan ageri dena, argitara gabe dagoen beste hori, eta orain hemen argitara ematen ditugun lau testuok esku batek idatziak dira eta

euskara berbera dute. Eta badago argitara gabekoan errakuntza edo dena delakorik: espero den eta guk argitaratuak dioen «predicacea»ren ordez «predicazen» esaten du; eta «orañic» edo antzekoren baten partez «orañ» ipintzen du.

*Non* izan ziren predikatuak eta non zabaltzeko? Garbi dago gipuzkeraren osagai asko aurkitzen dela: «onetaz», «dedala», «dedan», «eguiazco», etab.; baina ez dira gutxi ekialdeko euskalkietakoak: «bezala», «izatecoz (eta izateco)», «quen biozate», etab. Beraz, bere eginbeharra Nafarroan betetzen zuen gipuzkoarren bat ote?

Zer ondorio atera genezake testu horietan irakurri dugun pasarte honestatik? Entzun dezagun: «Zure... alaba vildalzen dezu bacarric mendira egurra eguitera, hacienda goardacera, eta bidalzendezu mezetetara», 3,3. Azken hitz horrek «mezetetara» esan nahi du, hala uste dugu, Nafarroan ari zela sermoilaria.

*Noiz* prestatuak? Ez dago datarik paperetan eta ur marka ezin dugu ongi ikusi. Idatzi baten hasieran «tresladado» ipini dute, baina beste tinta eta esku batek egin du hori. Beraz, idatzi hori oinarritzat harturik, norbaitek aldatu egindu bera. ETZ liburuan, 63 h. or. etan dagoenean ere «tresladado» dio lehen orrian, eta badira beste bi kopia berarenak, bat 1748.goa eta 1762.goa bestea.

Atal honetan mintzatu gara sermoi baten bi kopiarri buruz, horietako hiru pasarte erkatzen genituela. Argitaratua dagoela geniona 1747 eta 1751. urteetan izan zen erabilia. Beraren saileko zaharrena 1743 eta 1826. urteetan, eta berriena 1753 eta 1626. urteetan. Data horien –1743 eta 1753 esan nahi dugu– aurretik ala atzetik izan ziren idatziak gure oraingo lau testuok? Guk ditugun datuekin ez dakigu erantzuten galdera horri.

## GRAFIA ETA FONETIKA

Hitz barruan ez da ageri ia inoiz ere -y- grafema, -i- baizik. Hitz hasieran beti *v*- dago eta barruan maiz -u- grafema, -v- edo -b- idatzi beharrean. Gehienetan «cu»ren ordez «qu» idazten du, eta behin bakarrik aurkitu dugu «gui»ren partez «gi»: «gichira», 1,4. Bokal harmonia behin aurkitu dugu: «Veguirezazute», 2,2at.; eta hiatoa deseginik bi aldiz: «Gua-zzen», 3,2, eta «vsuari», 2,2. Bukatzeko, zenbait hitz –*Christo, Maria, San* eta latinezkoetan *ae* diptongoa– batzutan edo beti laburturik daude.

Aipatu ditugun gertakari hauek ekarri ditugu arrazoi honengatik, bes-teak beste, ikusteko zer erlazio duten testuok behin baino gehiagotan mintzatu garen beste sei euskal testuekin, eta baita ere Nafarroako euskalkiekin. Hori bera esan behar da hurrengo ataletan azalduko diren zeretaz.

## MORFOLOGIA

Testuotan beti *-kiñ* edo *-kin* ageri da, *-ñ/n* hori galdu gabe; hiru bat aldiz ikus daiteke *-s* eta *-ez*; *-z*; ergatibo plurala *-ak* da.

Hitzetan, hona hauek: «*aberas / aberaz*», «*beste*», «*bezala*», «*esan*», «*pecatu*», «*santu*». Erlatibozko perpausetan ez da erabiltzen *bai(t)*.

Aditzaren arloan, geroaldian *-go* erabiltzen da eta xedezko perpausetan

ia beti *-koz* eta ez *-ko*. Lehenaldiko adizkietan behin bakarrik falta da bukaerako *-n*: *zue*, 3,4at. Ez dago «*zachaten*» bezalako formarik. Eta beti *dan*, *det*, *ninzen* eta horrelakoak idazten dira.

## HIZTEGIA

Hauek erakusten ditugu hemen: *aizin*/*aurre*, *aniz*/*asko*, *aztu*, *benzutu*, *ebasi*, *eri*, *ezer*, *etxeren* ‘itxaron’, *iz egin*, *geago*, *gitxi*. Guk ulertzen ez dugun *eztasa* ‘ez dasa’ (?) ageri da: 4,2.

## SINTASIA

Atzetik ipiniko genitiborik ez da falta: «Da gauza propio Jangoicoaren *Ministroena*», 2,1; «denbora presenteco onetaz», 4,1; etab. Oso ongi egiten du izen eta izenondoaren arteko komunztadura mota hau: «llaga santissimoac», 1,2at.; «anima christiano», 1,3; etab.

Ez ditu ongi erabiltzen adizkiak behin baino gehiagotan (*Ik. ADIZ-KIAK saila*) eta ergatiboaren marka noizean behin falta da: «Iz eguiten du Profeta Isaias» («Isaiasec» esan beharrean), 1,1; «Job Santua... esatendu», 1,3at. Eraltibozko perpausetan honako hau aurkitu dugu: «esatenzuela zer guc esan bearguenquen» ‘quod, what, lo que’, 2,3at. Iraganean ikus ditzagun hauek: «izanitez causatuac guizonaz», 2,3; eta «Dauid zan guztiz perseguitua bere esaiengandic», 2,4.

## GURE LANA

*Testuak*. Dauden bezala transkribatzen ahalegindu gara, ez delarik izan beti arazo erraza. Hasteko, orrialdeek daramatzaten zenbakiak guk ipiniak dira. Bokal gainean ipiniak dauden zenbait ikur azentu marka edo zer diren dudatan egon gara, batzutan marka hori jartzen dugula eta beste batzutan marratxo zuzen bat.

Hizki bat nagusitzat jo behar den ala txikitxat, horrek ere sortu dizkigu istiluak eta ez dugu seguru ongi asmatu. Izen propioetan hizki nagusia erabili dugu, eta arruntetan ere hori bera egin dugu puntu hasieran eta askotan bi puntu edo puntu eta koma ondotik. Hitz hasieran maiz *J* nagusia ageria da, guk *J*, *I* edo *Y* idazten dugula: «*Jaten*», 1,4; «*I sino*», 2,1at.; «*Yá...*: *Yá*», 3,3at. Latinezkoetan beste era bateko *J* egiten du.

Gehienetan, *a-* edo *e-* protetikoa patutzean, bokal horien gainean marra zuzen gioi antzekoa ikusten da eta *r* bakuna: marra hori kendu eta *rr* bikoitza idatzi dugu. Bi lerrotan zatiturik dagoenean hitz bat, orduan ere izan da buruhausterik, gutxitan erabiltzen bait du marra lerro amaieran. Hitz laburtuetan falta diren hizkiak parentesian eman ditugu.

*Oharpenak.* Zenbait aldiz dagokion testuaren orrialdea eta paragrafoa erasten dira. Bestalde, hor esaten ditugunak ez ditugu egia eta fedea bezala ematen, baliagarri gerta litekeen hurbilpen bat bezala baizik.

*Hiztegia.* Hasieran *h-* duten erdaratiko hitzak beren tokian kokatu ditugu, baina euskarazko zenbait hitz *h-* hori ez balute bezala sartu ditugu: «*han*», «*hecheren*», «*heritasun*», «*hume*», denetan hizki hori salbuespen gisa erabiltzen delarik.

*Adizkiak.* Adizkien zerrendan ematen ditugu baita ere aditz-jokoak atzizki etab. esanguratsuren bat dutenean: *da*, «*dan*», «*dala*», «*eztanac*»; *dago*, «*dagoenac*»; *det*, «*dedan*», etab. Adibideetan ipini ditugu *quen biozate*, *acababitez*, *sentidezan*, *eztezagula faltatu*, *ardezaquezute* eta holakoak, erakusteko ia galtzen den ala ez aditz nagusiko bukaera.

## LABURDURAK

- a. aditza
- ad. adberbioa
- adj. adjetiboa
- at. atzetik
- au. aurrizkia
- d. determinatzaila
- i. izena
- Ik. ikus
- in. interjektzioa
- io. izenordaina
- j. juntagailua
- p. posposizioa

### 1. TESTUA

1. «Isaiasec» izan behar luke.
2. Hemen «Jaingoicoac» dio, beste guztietaan «Jangoicoa» dioela.
3. «diuinoaz», eta ez «diuinoac».
4. Bokal protetikoa ipintzean, *-r-* bat bakarrik idazten du gehien-gehienetan, beste «r»ak ez bezala egina. Noizean behin ez du holakorik egiten, baizik eta normalki espero den «rr» bikoitza erabiltzen du. Adibidez, 2. orrialdeko lehen paragrafoan «errezebitu» dago. Guk beti «rr» jarri dugu.
5. Hiru zatitan idatzia: «on eguiñ zalleari».

6. Hola: «orrequiñ», baina «berarequin».
7. Hemen «rr» idatzi du, goian esan dugunez. Beraz «errezebitu».
8. Hitz bat eginik, «Ama Santissimarenean» esan beharrean.
9. Espero litzateke «badiezu».
10. Hemen «ezpadiezu» behar luke.
11. Hola eta ez «agradezituran».
12. Hola dago: «guardezan».
13. «vzuric» eta ez «vziric».
14. Ez «misericodia». Urrengo paragrafoan ere behin «misericordi».
15. Espero da «-ciela».
16. Errepikaturik konparazio atzizkia: «gogorragoago».
17. Ez «errabiaturic».
18. Bi zatitan partiturik: «era man».
19. Ez «Demonioac».
20. Ez «vere».
21. Espero da «eztiezu».
22. Esan beharrean (?) «-zeradela».
23. Ez «seculaco».
24. Espero da «dezula».
25. Hola dio: «andia abec».
26. «peccabis»en ordez. Latinezkoetan oker gutxi egiten ditu. Urrengo orrialdean «iuditium» idatziko du, eta berriz ere «iuditium» 4at. orrialdean, 2. paragrafoan.
27. Hemen «arc» espero da.
28. Hemen «Idiqui», baina paragrafo honetan bertan «iduqui» hiru aldiz.
29. Espero da «Santuac».
30. Hemen «librazecoz», baina 5 hitz aurrerago «izateco».
31. Espero da «zituen».
32. Hola dago: «artuzeaz», «aztuzeaz»en partez.
33. Hemen «izateco» eta 5 hitz aurrerago «izatecoz».
34. Hola dio: «zogoela» eta ez «zegoela».
35. Espero da «izancien».
36. «allagatu» eta ez «allegatu».
37. Espero da «izancien».
38. «gichira» eta ez «guichira».
39. Ez «aditurican».
40. Ez «andic».
41. Errepikaturik konparazio atzizkia: «gogorragoago». *Ik.* 16. ohar-pena.
42. «zere» dio eta ez «zer».
43. Ez «erremedioric».
44. Hemen «Catholico», baina paragrafo honen hasieran «Catholicoa».

## 2. TESTUA

1. «mittens»en ordez eta «Matthaei»ren partez. Berriz ere «Mathei» 1at., 3.; «pecauit» 3,3, «peccauit»en ordez; «adbersa» 3at., 2, «adversa»ren partez; «adbersum» 4,3, «adversum»en partez; «Serbus» 4,3 eta ez «Servus».
2. Aurreko testuko 4. oharpenean esan dugun bezala, bokal protetikoa ipintzean, -r- bat bakarrik idazten du, eta -r- hori beste «r»ak ez bezala egina. Salbuespen gisa «errezebizen» 3,2 ikusten dugu.
3. Espero da «batec».
4. Hemen «erreprendizeaz» eta hiru hitz geroago «quenzecoz».
5. «batequin» eta ez «batequiñ».
6. Bi lerrotan dago partitura «serui dezan» eta guk ez dugu bat egin.
7. «baldin» eta ez «baldiñ».
8. Espero da «gogorreco».
9. Hola dago: «Santissimaren».
10. Hola dio: «asumptua».
11. Espero da «-ziena».
12. Espero da «-cien».
13. «-zion» espero da.
14. «-cien» espero da.
15. Hola dio: «animas», -s horren beharrik ez dagoelarik.
16. Bikoitzu egin du -aa: «gloriosoaaz».
17. «nazazu» espero da, ez «nazazute».
18. Orrialdearen eskuineko bazterrean «Exemplo» dago.
19. Bi hitz egunik dago: «an beste».
20. Bi hitz hitzetan zatiturik: «nau en».
21. Orrialdearen ezkerreko bazterrean «Exemplo» dio.
22. Hola: «Ambrosioagatic».
23. «aberaz» dio hemen eta beste bi aldiz ere paragrafo honetan.
24. Espero da «-cien».
25. Bi hitz egunik eta «a»ren gainean puntu bat ezarririk.
26. «Veguire» dio. Hemen bakarrik aurkitu dugu harmonia bokalikoa.
27. Hemen «zeñ» dio eta 11 hitz aurrerago «zen».
28. Espero da «diozcanai».
29. Hola dio eta ez «eta».
30. «Jou» dago, baina hurrengo orrialdean «Job» 5 aldiz.
31. Ez «Demonioac».
32. Espero da «esaiac».
33. Espero da «guztiac».
34. «ziela» espero da.
35. «-ezazute» espero da, ez «-dezazute».
36. *Ik.* 2. oharpena. «errezebizen» dago idatzia, «-rr-» bikoitza erabil-tzen duela.
37. «bildaduac» dio.

38. «baterere» eta ez «batere».
39. «videra» dio eta ez «videra».
40. Hemen «guzia» eta 6 hitz aurrerago «guztiac».
41. Bi puskatan zatitua: «-zioz zaiquiotela».
42. Bi hitz egunik eta «a»ren gainean marratxo bat paturik.
43. Espero da «die».
44. Bi hitz egunik ote: «e Romanoac»?
45. Bi hitzetan partiturik eta «a»ren gainean marratxo bat.
46. «ezpalin» dio eta ez «ezpaldin».
47. Ergatibo marka falta da.
48. Izen liteke ere «on aren», «on» lerro bukaeran dagoela eta «aren» hurrengo lerroaren hasieran.
49. Hola eta ez «barcacioa».
50. Hola eta ez «dezagun».

### 3. TESTUA

1. Hola eta ez «andibat».
2. «Iudaei» izan behar du. Latinezkoetan beste oker hauek aurkitu ditugu: «Profeta» 1,1 eta ez «Propheta»; «penitentiam» 1,1 eta ez «paenitentiam»; «apropinquabit» 1,1 eta ez «appropinquabit»; reddituri 1at., 3 eta ez «reddituri»; «oba» 3,3 eta ez «ova»; «disolutio» 3at., 1..  
3. *Ik.* 1. testuko 4. oharpena eta 2. testuko 2.a. Noizean behin aurkitzen da «rr» bikoitza gauden testu honetan.
  4. «Jerusalemgo» dio hemen.
  5. «Ezequielem» dio. Holaxe ere orrialde honen 3. paragrafoan.
  6. Hitz bat egunik, «Ama Santissimaren» esan beharrean. *Ik.* 1. testuan 8. oharpena.
    7. «diozcanac» espero da.
    8. Espero da «beza» edo «dezala», ez «dezun».
    9. Espero da «preparacioa». *Ik.* «disposicioa» bi hitz lehenago.
    10. Espero da «eztezun», 5 hitz lehenago esan duen bezala. Berriz ere «eztezu» 7 hitz aurrerago.
    11. Uste dugu «daquizula» espero dela.
    12. Hola: «aiñ», marratxo bat duela «a» gainean.
    13. «eztadu» eta ez «estadu».
    14. Izen behar luke «edertasunac».
    15. Espero da «-diezu».
    16. Espero da «-cien».
    17. Hemen «Abrahan» eta paragrafo honetan bertan «Abraham».
    18. Espero dena «emazteac» da.
    19. «iezadazue» edo honen antzekoren baten ordez.
    20. «iezadazu» edo honen antzekoren baten partez.
    21. Ez ote luke «ganaduai» izan behar?

22. Espero da «cien».
23. Hola dio: «-cetara», «-cerate»ren ordez.
24. Izañ behar luke «-duenac», eta hurrengo esaldian «eztuenac».
25. Hemen «-bide» dio bi aldiz, baina 2. testuan «-bidi» 3,1 esan du.
26. Espero da «-dute», et ez «-du».
27. Guk «Yerro» transkribatu dugu, eskuidatzian «J-» dago.
28. Espero da «ziñen».
29. Hemen ere «J-» bezala dago idatzia eskuizkribuan. *Ik.* 27. oharpena.
30. Ez «ezpaldiñ».
31. Hola dago eta ez «Abaququec».
32. Espero da «-ziozcacionac». *Ik.* 24. oharpena.
33. Espero dena «-zien» da.
34. Hola dago: «guicheren».
35. Aditz iragankorra bezala erabili du «perezitu». Erkatu honekin: «animazitezten soldaduac» 2. testua, 4,2.
36. Uste dugu «guztia» eta ez «guztiaz» izan behar lukeela. *Ik.* «guztia» hurrengo orrialdeko 1. paragrafoan.
37. Hemen «desdichas», baina bi hitz aurrerago «miseriaz».
38. Hemen bakarrik aurkitu dugu lehenaldian bukaerako «-n»a falta zaion adizki bat. Baina aurreko esaldian «zuen» ikusten dugu, eta hurrengo esaldietan hiru aldiz berriz ere «zuen».
39. Espero da «-ciela».
40. «etorze-» dio eta ez «etorzen-».
41. Hitzen bat falta da hemen: «da» edo.
42. Espero da «diezutela».

#### 4. TESTUA

1. Eskuin aldeko goiko zokoan «tresladado» dio.
2. «-zaitez» esan behar luke eta ez «-zaitezte».
3. *Ik.* 1. testuko 4. oharpena. Noizean behin aurkitzen dugu «rr» bikoitza: «erratuco» 1,1; eta baita ere «irri» 1,2.
4. Latinezkoetan oker hauek aurkitu ditugu: «penitentiam» eta ez «paenitentiam»; «pecasti» 1at., 1 eta ez «peccasti»; «pecatis» 1at., 1 eta ez «peccatis»; «pecauimus» 2,2 eta ez «peccauimus»; «diferens» 2at., 2 eta ez «differens»; «exurge» 2at., 2 eta ez «exsurge»; «diferas» 3,1 eta ez «differas»; «Quandiu» 3,2 (hiru aldiz) eta ez «Quandiu»; «diferas» 3 at., 2 eta ez «differas»; berriz ere «diferas» 4,2 (bi aldiz).
5. Papera hautsirik.
6. Papera hautsirik.
7. Lerro batean «deshonestidade» eta hurrengoan «etan», marrarik gabe.
8. Hemen «baciña» dio, eta aurreko esaldian «bazizun» esan du. *Ik.* ADIZKIAK atalean BAZUEN ere.

9. Erlatiboa bi aldiz: «zeña» eta «vcatucion».
10. Espero da «-ciena».
11. Orain «vzizeco», baina berehalaxe «eguitecoz», «disponizecoz» eta «dizunecoz».
12. «tribunal» eta ez «tribunale».
13. Espero da «abiazea». Geroxeago ere «Abiazera» errepikatzen du.
14. Papera hautsirik.
15. Papera hautsirik.
16. Hemen «nazuena», baina «nazuna» esan ohi du. *Ik. 1,2; 1at., 1 eta 4,2.*
17. Hemen «perizizen», baina «perecit» erabiltzen du.
18. Ez dakigu zer den «Eztasa».
19. Hemen «Agustiñec» eta gero «Agustinori» eta «Agustinoc» paragrafo honetan bertan.
20. Espero da «eztezula».
21. Hola, batean eta «o» bat falta delarik: «Demonioriec».
22. Izan behar luke «medio» eta ez «medioz».
23. Hemen «gueroco» eta berehalaxe «guerocoz».
24. Bi hitzetan zatitua: «Ó Nelachen», «onelachen» idatzi beharrean.
25. Espero da «infinitoari».
26. Beharbada, bi hitzetan partitua: «ā costumbratuac».
27. Izan behar luke «eroriric», ez «eroric».
28. Uste dugu «nauzute» behar lukeela izan.
29. Bi hitzetan eta honela: «Jaquiñ duzuena», idatzi beharrean «Jaquiñdu zuena». Gainera, «-zuenac» behar luke, gure ustez.
30. Izan behar luke «-ciola».
31. Azkeneko «-a» errepikaturik: «cartaá».
32. «-zedin» dio, «-e» gainean puntu bat duela. Testu hauetan «zidin/zidiñ» erabili ohi da.
33. Espero da «osasunean».
34. Espero da «orduoro».
35. «accidenteac» espero da, ez «accidentes».

## 1. testua

+

*Sermon del Juicio  
Erunt signa in Sole, et Luna, et Stellis. Lucae Cap. 21.*

Guztiz egun terriblea, espantosoa, eta icaragarria izangodala azquen Juicioko eguna, esaten digu egun Evangelista Sagraduac San Lucasec; Juicioko egun triste lastimoso onetaz Iz eguiten du Profeta Isaias<sup>1</sup>, eta esaten digu guri guztioi: Negar egun zazute pecadoreac, deadar egun zazute dolore andiarequiñ, zuec anima tristeac, zergatic datorren yá, Juicio diuinoco eguna, egun cruela, egun indignacio andiz betea, egun guztia iraz betea, eta egun

calamidade tristez guztia betea, destruizecoz lur guztia, eta despedazazecoz munduko pecadoreac: *Vlulate!* Egun triste onetaz esatendu Profeta Sofonias, Izangodala iraz, calamidades, eta miseriaz betericaco eguna; egun andia, eta chit samiña; eguna tinieblas, tempestades, eta venganzaz betea, zeñarequiñ amenazazen gaitu Jaingoicoac<sup>2</sup>, ezen castigatuco dituela gogortasun andiarequiñ vere esai guztiac, eta zorroztucoduela vere Justicia diuinoco ezpata, eta ordituco duela ayen odoletan, aliqueta guelditu arte satisfaturic injuria eta ofensa eguiñ diozcatenaz: *dies illa, dies irae, calamitatis, et misericordiae*:

Ó zer egun terriblea, eta espantosoa, izango dan au pecadore tristearenzat! Eguiñ Jangoicoaren Magestadeac anbeste beneficio eta fauore, eta correspondituzo pecatuaquiñ, eta ofensaquiñ; vada Jaquiñ zazu, ezen castigazzen dituela Jangoicoaren Magestadeac rigore, eta gogortasun andiarequiñ persona aiec guztiac vsazen dituztenac gaizqui vere beneficio, eta fauore diuinoaz:<sup>3</sup>

Iz eguitendu Juez diuino Christoc pecadore escandolosoaz, ematendueña motiuoa besteac pecazecoz, eta esatendu; conuenida ezen pecadore escandoloso atreuitu orri, paradiozaten edo amarradiozaten lepotic errotaco arribat, eta amarraturic orrequiñ, quendiozaten vicia, botazendutela Ichasoco profundidate andira; [lat.] *expedit ei, ut suspendatur mola asinaria in collo eius, et demergatur in profundum maris;* eta esaten du Aita San Ambrosioc dala au castigu Justoa pecadorearenzat, zergatic botatzuen pecadoreac ingratitudetarik eta desatencio andiarequiñ lepotic Jangoicoaren Mandamentu Santuetaco vztarri suavea; vada da arrazoia<sup>4</sup> sentidezan orretan bertan, infernuco tormentuetaco vztarri terriblea, eta gogorra: ala esatendu Aita S(a)n Ambrosioc: *portat lapidem, qui portare iugum Domini recusavit:* ondo merecricaco castigua izangodu ori:

Baña galdezendet nic: zergatic amarratu bear zaio pecadoreari lepotic errotaco arria; ezta orobat amarracea erozeñ arri? Ezez dio San Pedro Chrisologoc, precisam(en)te izan beardala errotaco arria; Zergatic? Eztezute iqusten (dio santu onec) nola errotaco arriac disponizen duen sustentua pecadorearen vizizaraco, eta pecadoreac vsazenduen gaizqui viziza orretaz, eta nola correspondizen duen gaizqui Jangoicoaren beneficio orretaz? Vada errotaco arri orrec berac izan beardu vere doloreco cuchilloa, eta vere tormentu borreroa; quen biozate bizia, vada ezuen seruitu orrequiñ vere Jangoicoa; amarrabiozate lepotic errotaco arria, zergatic izan bearrean agradicitua vere on eguiñ zalleari<sup>5</sup>, valiatuzan beneficio eta fauore orretaz veraz, gueago ofendizecoz Jangoicoa; castigu Justoa da vada ezen arri orrequiñ<sup>6</sup> berarequin, zeñarequiñ emancioten bicia, eman ere diozaten erioza, botazendutela ichasoco profundidadera, eta andic Infernuco tormentu andietara; ala esatendu S(a)n Pedro Chrisologoc: *bene ergo ad collum lapis alligatur molaris, ut hoc illum ad mortem trahat, quod trahere debuissest ad vitam.*

[2] Ó Catholicoá, zenbat beneficio errezebitu dituzu Jangoicoaren Magestadea gandic? eta nola corresponditu diozu aren Magestadeari? Corresponditu diozu seruizen dezula, guardazen dituzula vere Mandamentu Santuac, eta vere legue diuinoa? Ó zeñ dichosoa izangozeraden valdiñ ala eguiñ badezu, ó zeñ gloria andia emango dizun aren Magestade diuinoac zeruan vere compaña amorosoan, eta vere Amantissimarenean<sup>8</sup>; ómilla bider zure dichosoa eta feliza; vaña milla bider zure tristea, eta miserablea valdiñ corresponditu badiozu<sup>9</sup> Jangoicoac eguiñ dizquizun beneficioai, eta

fauoreai, pecatuaquiñ, eta ofensaquiñ; milla vider zure tristea, eta miserablea valdiñ baliatu bazerade beneficio orietaz, eta fauore orietaz gueago, eta gueago ofendizecoz zure Jangoicoa; Ó zer penac, eta tormentu andiac echeretendizquizun Infernuetan Demonio guztien compañian, eternidade guztian, valdiñ ezpadiozu<sup>10</sup> correspondizen Jangoicoaren beneficio andiai agradeziturica<sup>11</sup>, seruizen dezula eta guardezen<sup>12</sup> dezula vere legue santua, eta vere mandamentu diuinoac, vzuric<sup>13</sup> pecatu guztiac, eta ofensa guztiac. Izan zaitez vada agradecitua Jangoicoaren beneficioai, eta vere misericordi<sup>14</sup> andiai, ezayzan castigatu vere Justicia riguroro diuinoac, beste pecadore miserable au bezala:

Contazendu exemploen Colectoreac, eta Gotsalcoc, ezen emanciola pecadore bat eriozaco gaizac, eta erreguzen ziotela bere adisquideac ezen confesazidilla, eta pecadore onec erresponzenciola<sup>15</sup> furia andiarequiñ: Eztaquizute ni naizala pecadore andia, eta ezzidala apro [2at.] uechatuco ezerere penitenciac, edo confesioac? Ni condenatua nago: Vere adisquide abec eziñ erreducituric pecadore eri au confesazera; allegatu zan adisquideric guztiatic andiena Christo gure Jauna, eta aguerzen zala, esacion amorio andiarequiñ; Ni naiz Jesu Christo zuregatic ill ninzana guruze batean clautur zu salbaceagatic, eta nere misericordia andiagoa da mundoço pecatu guztiac baño; Ea confesa izazu eguiñ dituzun pecatu guztiac, eta guztiac barcatuco dizquizut: Eta pecadore au gogorrago arri guztiac baño zegoen eznai obedicituric Christo Jaunaren iz amoroso abei, eta vere misericordia andiari; onequiñ guztiarequiñ continuazen zuen gure animen Salbadore andionec obrazan pecadore eri onequiñ vere fineza, eta misericordi andiac, eta alchazen zuela mantubat zecarrena, eta eraqusten ziozcala vere llaga santissimoac guztiac odoletan, esacion: Veguira nazazu nola nagoen, au guztia padecitunuen zugatic; nic ezaitunai condenatu, valdiñ zuc naibadezu eguiñ penitencia, eta naibadezu confesatu; onequiñ guztiarequiñ ere ezan mouizen confesazera, zegoen gogorragoago<sup>16</sup> bronce guztiac baño: Iqusiric bada Christo Jaunac berac pecadore au zegoela aiñ gogortua, eta ezuela nai aprouechatu vere beneficio andiaz, eta ez vere misericordia diuinoaz, artuzuen orduan vere costadu santissimotic esqua bete odol, eta botatucion pecadore miserable oni vere arpeguira, esatenciola: Señale au ateracodezu azquen Juicioco egunean, mundu guztiaren aiziñean, señaletaz ezen zuc zerorrec nai izan zenuela condenatu izan, ez nai izanduaz aprouechatu nere misericordia diuinoaz, eta nere odol preciosissimoaz; eta ala izangoda [3] nere odol preciosissimo au, zure condenacio andiagocozat; onequiñ illzan pecadore miserable au desesperaturic, eta errabituric<sup>17</sup>, eta era man<sup>18</sup> zuten vere anima tristea Demoniac<sup>19</sup> Inferneta: eta onen corpoza ateracoda azquen Juicioco egunean erresuscitaturic Joatecoz ácompañazera vere anima, eternidadeco tormentu andi aietara; eta Iqusico degu guztioc Jesu Christo gure Jaunaren odol preciosissimoa pecadore arren arpeguian señalezat, eta nola eguiten dion cargua ez nai izanduaz aprouechatu mere<sup>20</sup> misericordia diuinoaz, eta vere piedade andiaz, eta beneficioaz.

Zu pecadore adizen nazuna, zu anima christiana, nola eztezu<sup>21</sup> obedezizen Jangoicoaren izai eta vozai, nola ezerade mouizen penitenciara Jangoicoaren Ministroen izaquiñ, eta vozaquiñ; veguirazazu galzenzerade<sup>22</sup> secularraco<sup>23</sup>; considera ezazu, ezen zure culpa, eta pecatu oriequiñ caminazen dezu<sup>24</sup> malograzeria zure erredeemptore diuinoac zure gatic ichuri zuen odol preciosissimoa; considera ezazu, ezen valdiñ epazelerade emendacen viziza

gaisto daramazun orretaz, zoazela miserablemente Infernuetaco eternidadeko tormentu andiaietara vetrico condenaturic Demonio guztien compañian: Ó zure tristea, eta miserablea baldiñ condenazen bazerade! Nola sufrituco dituzu eternidadeko tormentu andia<sup>25</sup> aiec? Nola sufritucodezu vetrico su andiura? *quis poterit habitare de vobis cum ardoribus sempiternis?*

Esaten digu Espiritu Santu Jaunac, ezen acordagaitezela beti, azquen Juicioco egun triste lastimoso gogor artaz, eta orrequiñ eztegula beñere pecatuco: *Memorare nouissima tua et in aeternum non pecabis*<sup>26</sup>: Juicioco egun terrible espantoso onec zeukan beti Icaraturic Aita San [3at.] Geronomo; vada zegoela vere zelda pobrean sarturic penitencia andia eguiten zuela, vstezuen Jozenzuela vere belarrieta Juicioco trompeta Icaragarri vra<sup>27</sup>, eta esatenuela: *Surgite mortui venite ad iuditium;* illac atozte Juicio diuinora; vada santubat aiñ andia nola zan Aita San Geronomo, valdiñ bazegoen aiñ billdur andiarequiñ Jangoicoac escatucozion contu andiaz Juicioco egun artan; zer villdur iduqui beardu Santu eztanac? Zer villdur Iduqui beardu Juradoreac, Maldicienteac, Murmuradoreac, Odio, eta Enemistadean dagoenac? Zer villdur Iduqui beardu desonestoac, Lujuriosoac, eta dabillenac betico Jangoicoaren ofensetan, guardatu bague vere legue santissimoa, guardatu bague vere Mandamentu santuac? Zer villdur Idiqui<sup>28</sup> beardu vizidanac Eregebat bezala vetrico pectuetan, eta Jangoicoaren ofensetan, acordatu bague azquen Juicioco egun triste miserable artaz?

Job Santua<sup>29</sup> libracecoz<sup>30</sup> culpa, eta pecatuetatic eta izateco Santua, esatendu ezen veti acordazen zala eguiten zuen<sup>31</sup> gauza guztieta zer contu andia escatucozion Jangoicoaren Magestadeac vere Juicio diuinoan; eta villdur andi onequiñ ezan atreuzten eguitera gauza gaistoric batere: *verebar omnia opera mea, sciens, quod non parceres delinquenti;* eta Escritura Sagraduac esatendigu, ezen ez acordatuaz pecadoreac Juicio diuino artaz, etorzen zaiotela artuzeaz<sup>32</sup> Jangoicoaz, eta veren anima tristeaz, eta orrequiñ entre-gazeten dirala, edo ematendirala vicio guztieta: *inquinatae sunt viae illius in omni tempore: auferuntur iudicia tua à facie eius;* eta gauza aiñ importantea bezala ez izateco<sup>33</sup> gu, gaistoac, sino es izatecoz gustiz onac, proponizendigu Christo gure Jaunac anizetan, azquen Juicioco [4] Memoriac eta Señale tristeac, Eguzquian, Illarguiian, eta Izarretan: *Erunt signa in Sole, et Luna, et Stellis:*

Onen comprobacioan erreferizendute Autore graue anizec, eta San Juan Climacoc ezen vizitu izanzala Mongebat, edo religioso bat descuidaturic vere obligacioaz, eta izanduzala eramana tribunale Diuinora eta zogoela<sup>34</sup> guzia Icaraturic, eta villdurturic eziñ erresponenturic Juez diuinoac eguiten ziozcan carguai; guzia zan escazea misericordia; Izulizanean vere rapto artatic, esan izancion<sup>35</sup> beste Mongeai, edo erreligiosoai, vzizezatela bacarric vere zeldan edo aposentoan; Ichizuen vereala vere aposentoa eta egonduzan encerraturic ateratu bague amar vrtean, denbora onetan guztian ezuela Jaten ogui piscabat, eta vr piscabat baizen, eta orrez gañera eguiten zuela penitencia, eta mortificacio andia; eta zegoen beti suspendituric Juicio diuino consideracioan; eta allagatu<sup>36</sup> izancizaion guero eriozaco trance, edo ordua, eta esan izancion<sup>37</sup> beste Monge edo erreligioso presentean zeuden guztiai, iz abec: *Considerazen duenac atencio andirequiñ Juicio diuinoan, eztu pecatuko;* eta Ill, eta sepultatu zutenetic andic gichira<sup>38</sup>, esatendu San Juan Climacoc ezen ezutela arquitu vere corpoza, cergatic zegoen yà vere animarequiñ zeruan gozazen Jangoicoaren compañía dulce amorosoaz.

Considera ezazute oraiñ Catholioac, zer erremedio andia dan ez pecazcoz, ácordacea beti Jangoicoaren Juicio diuino artaz: Aita Santuen vizizan contazenda errege Bogorisengatic, ezen zala errege au Paganoa, edo eregea eta adisquidea eizean ibillcea fierac cogizecoz eta zeucazquiela vere Palacioan pintaturic orrible espantosoenac; aguiñdu izanducion Monge bati edo religioso bati zerizana Metodio zana Pintore andia, ezen eguiñ ziozala pinturabat guztiz orriblea, eta espantosoa; eta Pintatu izan zion [4 at.] érreligioso onec Juicioco eguna, eta Icusiric errege onec pintura au, eta aditurica<sup>39</sup> vere esplicacioa guelditu zan aiñ espantaturic, eta villoidurturic, ezen vzizuen vere vizi gaistoa, eta conuertitu zan gure federuntura, eta eguiten zuela andi<sup>40</sup> aurrera vizizabat guztiz santidate andicoa:

Pecadorea, vizizerana christabaren izenarequiñ eta eregearren obraquiñ, naudituzu Idiqui beguiac? Vada para izazu zure begui oriec, eta consideraciona azquen Juicioco egun terrible espantoso artan, eta izanagatic zu Judiobat vaño gogorragoago<sup>41</sup>, eta gaistoago, vzico dituzu bai zure culpac, negar eguiñgo dezu zure pecatuaz, eta emendatuco dezu zure viziza gaistoa; zer vstedezu dala causa izatea zu gaistoa, eta beste diraden guztiac? Vada da causa, ez pensazea zuec, azquen Juicioco egun icaragarriartan, ala esatendu Espiritu Santu Jaunac: *Viri mali non cogitant iuditum:*

Ea vada Catholioa; denborada yà, zuc vzizecoz Jangoicoaren ofensa guztiac; denborada yá apartazecoz pecatu guztiatic; denborada yà empleazecoz Jangoicoaren seruicio santuan, veguirazecoz yà zure anima tristeaz; zere<sup>42</sup> izangoda zutaz valdin condenacen bacerade ez seruituaz zure Jangoicoa, eta ez guardatuaz vere Mandamentu Santuac? Egon bearcodezu érremediori<sup>43</sup> batere gaue eternidade guztian Infernuco su andi artan, Demonio guztien compañian? Ea vada nere Catholio<sup>44</sup> ezoazen seculaco tormentu andiaietara seruizazu Jangoicoaren Magestade Santua, vzi izazu ofensa guztiac, pecatu guztiac, costumbre gaisto guztiac; eta valdiñ oraiñdaraño vizitu bazerade Erege bat vezala acordatu bague zure Jangoicoaz, betico ofensaquiñ; ona non dezun zure Juez diuinoa (aqui saco el S(an)to (Chris)to) guztia misericordiaz beteric barcازecoz zure pecatu guztiac; ea escazaiozu misericordia esatendezula dolore andiarequiñ; *Nere Jesu (Christ)to Jauna &<sup>a</sup>*  
= La contricion

## 2. testua



*Sermon del Seg(un)do Dom(ing)o de Adbiento  
Iohannes autem cum audisset in vinculis opera Christi: mitens<sup>l</sup> duos de  
Discipulis suis, ait illi: tu es qui venturus es? Mathei<sup>l</sup> Cap. 11.*

Egungo Euangilio Sagraduac proponizen digu, Euangelista San Matheoren amaika garren Capituloan, ezen Precursore Diuino S(a)n Juan Baupista, arquizen dala Carcela riguroso, edo gogorbatean catez, eta grilluz cargaturic, zergatic Predicacion errege Herodesi egquia, eta zergatic érreprenditu<sup>2</sup> izanducion bere amancebamentu torpe deshonestoa, vada zegoen

amancebaturic, bere anaiaaren emaztearequiñ: *Non licet tibi habere vxorem fratriis tui*: Ezaizu lictio egotea amancebaturic zure anaiaaren emaztearequiñ: Zergatic nai izanduzuen quendu escandalo andiau Precursore Diuino S(a)n Juan Baupertistac, artu izanduzuen onen contra erregue Herodesec odio bat aïn andia, ezen sartu izanduzuen carcela gogorbatean guztia grilluz, eta catez cargaturic: *Ioannes in vinculis*:

Da gauza propio Jangoicoaren Ministroena padecizea egua Predicazeagatic, zergatic eguiac asco offendizenditu munduko persona aniz: *Veritas odium parit*: Eguia au icustendegu egunoro, bada baldiñ Jangoicoaren Ministroren bat<sup>3</sup> erreprendizen badio bati bere viziza gaistoaz, bereala viurzenda aren contra arzendiola odio mortalbat: *Veritas odium parit*; eta au zergatic? Zergatic eztuen considerazen ezen Jangoicoaren Ministroac daudela obligatuac erreprendizeaz<sup>4</sup> vicioac, eta quenzecoz escandalo guztiac:

Dago bada Precursore Diuino Baupertista padecizen Christo gure Jaunaren amorioagatic carcela gogorbateco penac, eta trauajiac catez, eta grilluz cargaturic, eta au consuelo, eta gusto andi batequin<sup>5</sup> zergatic paderezien duen verer amorio diuinoa gatic: Orregatic esatendigu Aita S(a)n Agustiñec, ezen padecicea mundu onetan trauajiac, gossea, egarría, pobrea, persecucioac, eritasunac, eta beste trabajuac, dala [1at.] señale ona, bada dala señalea ezen Jangoicoaren Magestadea acordazen dala persona artaz: orregatic esatendigu S(a)n Pablo Apostoloac: *quem enim diligit Deus castigat*: ezen Jangoicoac amazen duen persona, castigazen duela: *flagellat autem omnem filium quem recipit*: Azotazen duela erreceuizen duena bere semezat: Eta auda amorioaren señalea? bai: I sino, esanazazute: Zergatic castigazen du Aita batec vere semea, Amabatec vere alaba? Zergatic deseazen dion vere ona, eta amorio dionagatic, bada ezpalioque amorioric, vzicolioque gauza galdua bezala casoric eguiñ bague; baña izan didiñ ona, obedientea, eta Jangoicoaren bildurtia mortificazen du, eta castigazen du: Alachen bada Jangoicoac anima batequiñ, zergatic amazen duen, eta deseazen dion bere ona; bada izandidiñ ona, bildur izandiozan, serui<sup>6</sup> dezan, eta obedidezan, castigazen du eritasunaquiñ, persecucioaquiñ, eta veste trabaju ascorequiñ:

Ea bada nere Catholicoac, sufridizagun paciencia andiarequiñ Jangoicoac ematendizquigun trabajuac mundu onetan, bada ematendizquigu gure onagatic, guri digun amorioagatic, eta baldin<sup>7</sup> bagaude azturisticaren Magestade Diuinoaz, acordagaitezen guri digun amorio andiaz: Eramandizagun consuelo, eta alegría andiarequiñ trabaju guztiac, imitazen degula onetan Precursore Diuino S(a)n Juan Baupertista, zeñac sufrituzituen alegría, eta consuelo andiarequiñ carcela gogorrec<sup>8</sup> trabajuac guztia zegoela cargaturic grilluz, eta catez: *Ioannes in vinculis*, Christo Jesus Diuinoaren amorioagatic, eta alcanzazeagatic bere gracia soberanoa; escadiozagun guztioc M(ari)a SSantissimaren<sup>9</sup> medioz esatendegula *Ave Maria*=

*Ioannes autem cum audisset in vinculis opera Christi:: &<sup>a</sup> Mathei Cap. 11.*

Nere rato onetaco asumptuoa<sup>10</sup> izangoda ponderazea ezen Jangoicoac ematendizquigun trabajuac mundu onetan, izatendirala guri digun amorio andiagatic, eta gure onagatic.

Sermoi Despedidaco artan eguiñ izanziona<sup>11</sup> Christo gure Jaunac vere Apostoloai azqueneco afa [2] ri artan, esan izancion<sup>12</sup>: *ego dispono vobis sicut disposuit mihi Pater meus regnum*: Nic disponizendet zuenzat ērreinua, ala nola nere Aitac disponituzuen nerezat: Nola disponitu, eta preparatu izan-

duzuen Aita Eternoac Christo gure Jaunari gozazezan bere erreinuaz? Trabajuaquiñ, persecucioaquiñ, sufrizearequiñ, eta padelizearequiñ afrentac, passio santua, eta erioza: Ala esan izancion<sup>14</sup> Jaunac berac Emausco gaztelura caminazen zuten Discípulo aiei biai: *haec oportuit Christum pati, et ita intrare in gloriam suam*: Vada modu abequiñ, eta exercicio abequiñ ejercitzen, eta disponizen gaitu sargaitezen zeruco reinu gloriosoartan eguitecoz compaňia: *Vt edatis* (essatendu texto sagraduac) *et bibatis super mensam meam in regno meo*: eta orduan esangodute animas<sup>15</sup> dichosoac, Profeta Santu Dauidec esatenduena: *laetati sumus pro diebus, quibus nos humiliasti: annis quibus vidimus mala*: alegrazen guera Jauna egun aietaz, eta vrte aietaz zeñetan humillatu guinduen pasazen guinituela trabaju andiaquiñ, eta samiñtasun andiaquiñ, zergatic gauden orañ gozazen vere erreinu gloriosoaaz<sup>16</sup>:

I sino, esan nazazute<sup>17</sup>: Zergatic ichizen dezu, eta encarzelazen dezu choricho? Zergatic estimazen dedan eta nai eztedan dijoan: eta echean dabilen vsuari zergatic quenzen diozcazu egoac? Orregatic beragatic eztidiñ bolatu: Alachen bada Jangoicoaren Magestadeac, animabat eztijoan bere apetitu gaistoen azetic, aprisionazendu trabajuaquiñ, quenzendiozca egoac humillazenduela tentacioaquiñ, eta persecucioaquiñ; eta au zergatic, zergatic amazenduen, eta estimazenduen.

Guztiz<sup>18</sup> ondo ezaguturic zeukan au religioso santu batec, onengatic bada esatenda Aita Santuen bizian, ezen bizizala Desierto batean, eta egonduzala vrteascoan eri, eta bere eritasunarequiñ zegoela guztiz contentu; sucedituzan ezen vrte batean ezuela izandu eritasunic batere, eta achaqueric batere, eta motiuo onengatic negar eguitenzuen consueloric bague beti; eta galdezenziotela, ea zergatic eguitenzuen an beste<sup>19</sup> negar; érresponditu izanduzuen iz triste bazuequiñ, iz abec: Negar eguitendet, zergatic Jangoicoac desamparatu [2at.] nau en<sup>20</sup>, bada vrtero visitazen ninduen, eta erregalazen ninduen eritasunen batequiñ; eta vrte onetan aztu da nizaz, bada ez nau visitatu trabajuren batequiñ:

Animac paderezien dituzutenac eritasunac, eta trabajuac consolazaitezte exemplo onequiñ, eta confirmazecoz egquia au, adizazute caso au<sup>21</sup>: Aita San Ambrosioagatic<sup>22</sup> escriuizendu Pedro de Natalibusec, ezen pasazenzala erro-mara santu glorioso au, izanduzala hospedatua guizon aberaz<sup>23</sup> baten echean, eta galdezenziola santuac guizon aberaz oni bere fortunaz, érresponditu izanzion iz abec: Nere fortuna beti izanduda ona; ditut ondasun andiac, criaduac, esclauoac, seme asco, eta illoba asco; guztia suceditu zait nere deseoren conforme, eta eztet beñere izan eritasunic, ez molestiaric, eta ez trabajuric: apenas santu glorioso San Ambrosioc adituzituen iz abec, esan izancion<sup>24</sup> bera à compaňazenzuten<sup>25</sup> guztiai; goazen bereala eche onetatic, zergatic eztago eche onetan Jangoicoa: Eta apenas atera ziraden, eta apartatu izan ziraden eche artatic, non bereala idiqui izanduzan lurra, eta tragatu izanduzuen guizon aberaz vra, vere echea, eta bere echean zuen guztia, guelditu bague señaleric besteric zulo andibat baizen: Eta icusiric au santuac, esanzuen: Veguirezazute<sup>26</sup> nere anaiac zeñ<sup>27</sup> misericordia andiarequiñ tratzen dituen emen munduan bidalzen diozcanari<sup>28</sup> trauajuac, eta zen gogortasun andiarequiñ castigazen dituen, emen munduan felicidadeac ematen diozcanai: Eta Ama Santa Brigidari esancion Christo gure Jaunac, ezen condentu bearziranai, mundu onetan ematen diozcala descansuac, eta felicidadeac, zergatic eztizaten izan, emen penac, eta an penac: baña salbatu bear diranai,

ematen diozcala emen penac et<sup>29</sup> trabajuar, zergatic an izan bearduten gloria eterno bat.

Orregatic bada, nere Catholicoac, conuenida erreceuizea trabajuar Jangoicoaren esquetatic bidalduac bezala gure onagatic: Conjuratu izanduzan Demonioa Jou<sup>30</sup> Santuaren contra, Jangoicoac permitizenzuela [3] egun izanzuen Demoniac<sup>31</sup>, ezen bere esai<sup>32</sup> ebassizea bere ganadu guztia andiac, eta chiquiac; consumitu zituen suarequiñ vere ardi guztiac, eta bere Arzai guztiac: formatuzuen Demonioac vracanbat aiñ andia bere echearen gañean, ezen botatuzuen eche guztia lurrera quenzen ziola<sup>34</sup> bizia bere seme eta alaba guztiai; enfiñ iz batean, quendu izanducion bere azienda guztia, eta bere semeac, eta alabac: Oraïn galdezendet nic; nola portatuzan Job Santua trabaju andiabequiñ guztiaquiñ? Esatendigu texto sagraduac: *Dominus dedit, Dominus abstulit, sicut Domino placuit, ita factum est; sit nomen Domini benedictum*: Jaunac emanzizquidian ondasun abec, Jaunac quendu dizquida, onetan eguiñdu bere borondate santua, izanbidi onetan, eta beste gauza guztietan alabatua bere izen santua: Au baidala bai fortuna: Au baidala bai conformidadeco espiritu Jangoicoaren borondatearequiñ:

Eta bada ardezazuten exemplo exempla onetaz, erreparadezazute<sup>35</sup>, ezen ezuela esan Job Santuac: Jangoicoac emandizquit ondasun abec, eta Demonioac quendu dizquit, zala cierto quenduziozcala Demonioac; sino esque, esanzuen Job Santuac: Jaunac emandizquit ondasun abec, eta Jaunac quendudizquit; zergatic aunque izanduagatic Demonioa eguiñ izanduzioz-cana dañu abec guztiaç, baña izanduzan instrumentua bezala zeñetaz baliatu zan onetaracoz Jangoicoa, eta orregatic errezebizen<sup>36</sup> ditu trauajuabec guztiaç Jangoicoaren esquetatic etorriac bezala: *Dominus dedit, Dominus abstulit*: Emendic ardezaquezute exemploa, nere catholicoac, ezen etorzen zaiz-quizutenean trabajuren bazuec, edo persecucioeren bazuec, yà izanbitez cau-satuac guizonaz, edo Demonioaz, eztitzutze artubear etorriac bezala esaien esquetatic, sino bildaduac<sup>37</sup> bezala Jangoicoaren esquetatic: *Dominus dedit, Dominus abstulit*:

Job Santuac izanduzituen trabaju andiabetan guztietan, esatendu testo sagraduac, ezen ezuela essan Job Santuac izic gaistoric batere Jangoicoaren contra, eta ez progimoaren contra, eta ezala baterere<sup>38</sup> inquietatu: *in omnibus his non peccauit Job labiis suis, neque stultum [3at.] quid contra Deum locutus est*: Eztute au eguiten munduko persona ascoc, bada beren trabajuetan, perdidaetan, eta persecucioetan, vzizen dirade eramatzen iraz, botazen dituztela Juramentuac, eta Maldicioac beren progimoaren contra, eta gueago sentizeco dana blasfemiaquiñ, eta quejaquiñ Jangoicoaren contra.

Esatendu Aita S(a)n Buenabenturac, ezen dala perfeccio andiagoa, eta gure prouechu andiagoa eramatea pacientiarequiñ castiguac, eta trabajuar, ematea baño bat eguitera guztiz obra onac: *perfectius est aduersa tollerare, quam bonis operibus insudare*: guztiz da intento onetako suceditu zizaiona San Lupori: Santu onegatic esatendu Surioc, ezen pasazenzala Atila, Hunnoen erreguea, destruicenzuela francia guztia, ateratu izan zizaion viderade<sup>39</sup> San Lupo, eta esacion: Zeñ zerade zu, turbazen dezuna gure Jende guzia<sup>40</sup>, eta destruizen dituzuna gure lur guztiac? Eta ērrespondituzion erreguec: Ni naiz Jangoicoaren azotea: Apenas adituzituen Santuac iz abec, non aguiñdu izanzuen idiquizioz zaiquiotela<sup>41</sup> bereala ciudadeco ateac, esatenzuela zer guc esan bearguenuen gure trabaju guztietan: *Ongui etorria zerala Jangoicoaren azotea*: eta á compaňatu<sup>42</sup> izandu zuen ciudade guztian barrena.

Premiatu izanduzuen Jangoicoaren Magestadeac conformidade au borondate diuinoarequiñ, izanduzuena Santu onec, bada ichutu zituen erregue Atilaren soldaduac, eta pasatu ziraden ciudade guztian barrena iñoriere dañuric eguin bague:

Animazen zuela Jangoicoac bere sieruo Abrahan eramatera valore an-diarequiñ trabaju padezizenitzuenac, eta adbersidade esperazen zituenac; esancion: *noli timere Abraham, ego protector tuus sum, et merces tua magna nimis*: Abran eztezazula izan bildurric, iduquizazu animo ona, bada ni izangonaiz zure amparo, eta zu defendituco zaituena; eta zure premioa izangoda guztiz andia: gauza bi prometizen diozca; Lendabizicoa, ezen izangodala Jangoicoa bere defensa: *ego protector tuus sum*: Vigarrena, ezen bere premioa izangodala andia guztiz: *et merces tua magna nimis*: [4] izanditeque au baño ofrecimentu andiagoa? bada au guztia ofrecizen dio<sup>43</sup> Jangoicoac eramatzen dituzten guztiai trabajuac vere amorioagatic: prometizen digu verac lagunzea, eta duenac bere lagunzat Jangoicoa eztu zer bildurric izan trabajuric andienac izanagatic; eta orregatic esatenzuen Profeta Santu Dauidec: *si ambulavero in medio umbrae mortis, non timebo, quoniam tu tecum es*: Jauna, baldiñ arquizen banaiz eriozaco sombraren erdian, eztet bildurric izango gaizaz, zergatic berori dagoen nerequiñ:

Prometizen ere digu premio andia zeña dan bere gloria soberanoa: eRomanoac<sup>44</sup> ácostumbraren<sup>45</sup> zuten eramatea exercitoetan lecu publico batean, premio señalatua vencedore enzat, orreQuiñ iqusten zutela animazitezten soldaduac venzuzera: gauza bic bada bearbeituzte animatu benzuzecoz sufrimentuarequiñ trabajuac, eta adbersidadeac mundu triste onetaco batallan, bada mundu au guztia da guerra, eta batalla, esatendu Job Santuac: *militia est vita hominis super terram*: Lendavizicoa, prometiza Jangoicoac bere asistencia; eta bigarrena prometizen digun premio andia: *et merces tua magna nimis*:

Orregatic bada, Catholicoac, asco importazten du, ezen trabaju guztietan, eta persecucio guztietan acudicea guc Jangoicoagana, escazen diogula, izandidilla trabaju artan gure defensa, eta amparoa; eta eztezagula faltatu bere ofensaco gauzaric batean; erregue Profeta Santu Dauid zan guztiz perseguitua bere esaiengandic, eta murmurazten zuten erregue santu onen contra: *etenim sederunt Principes, et aduersum me loquebantur*; eta zer eguiten zuen orduan Dauidec? esaten digu texto sagraduac: *Serbus autem tuus exercebatur in iustificationibus tuis*: izulzenzan Jangoicoagana, eta empleazenzan exercicio santuetan, Justificazenzuela bere anima, orreQuiñ peligro aietan ezidin erori pecaturen batean: Ala eguiñ beardegu guztioic, eta ez eguiten duten bezala munduko asco personac, zeñac trabajuetan vzizen dira eramatzen beren coleraz, beren iraz, eta pretendizten dute venganza, ez-palinbada<sup>46</sup> obraquiñ, alo menos izaquiñ, Juramentuaquiñ, maldicioaquiñ, eta amenazaquiñ:

[4at]. Erregue Dauidi imitatu izanduzion religioso virtuoso batec, zeñengatic esaten du Libru Speculum exemplorum<sup>47</sup>; ezen emanzuela beste religioso batec perseguixea religioso santu au, denbora andiz, eta modu ascotara; eta aunque pagazenziozcan ofensac beneficioaquiñ, eta agasajo andiaquiñ, eta escazenzion Jangoicoari negarraquiñ aren erremedioa, religioso arc, eguitenzuen guztia botazen zuen parte gaistora, eta egoten zan gaizquiago erreligioso onaren<sup>48</sup> contra, an beste ezen alchatucion falso testimonio andibat vere onrraren contra, eta vere credituaren contra; eta falso

testimonio au zala medio, nola paderezzen zuen asco, escatucion Jangoicoari negar andiaquiñ onen remedioa, edo bere remedioa, eta bere esaiarena, parazenzuela medianerazat M(ari)ja Santissima; eta arras batean zegoela eguiten suplica au Ama Santissimaren Aldare baten aurrean, aguertu zizaion Ama Santissima, eta esacion: Nere semea acababitez zure negarrac, bada zuri alcanzatudizut gloria, eta zure esaiari arrepentimentua, eta barcazioa: Vzi izanduzuen M(ari)ja Santissimac bere presenciarequiñ aiñ vsai eder andia, ezen bete izanduzan vsai eder onetaz eche guztia, eta apenas sentitu izanduzuen vsai eder au esai arc, bereala abiatu zan negar eguiten bere pecatuaz, escatuzion barcacioa falso testimonio alchatu zionaz, eta guelditu ziraden paque andiarequiñ, eta adisquide andi eguiñic alabazen zutela Jangoicoa: Onelachen asistizen dio; eta premiazen ditu Jangoicoac paderezzen dituztenac trabajuac pacienciarequin, eta sufrizen dituztenac bere amorioagatic.

Ea bada nere Catholicoac sufridizagun paciencia andiarequin Jangoicoac ematendizquigun eritasunac, trabajuac, eta persecucioac, bada ematendizquigu gure onagatic, gu ezpaguerade acordazen Jangoicoaz, acordagaitezen trabajuen medioz; egungo Euangilio Sagraduan degu exemplo andia Precursore Diuino S(a)n Juan Bauptistagan; vada sufritu izanduzituen Jangoicoaren amorio agatic carcela gogorbateco trabajuac cargaturic guztia grilluz eta catez: *Ioannes in vinculis*: Ea bada nere Catholicoac oraiñ escatu beardiogu guztioc Jangoicoari dolore andiarequiñ gure pecatu guztien barcioa<sup>49</sup>: Ea esan ezagun<sup>50</sup>. Nere Jesu(Christ)o Jauna: aqui el acto de contricion=

### 3. testua



*Sermon del Tercer Dom(ing)o de Adbiento  
Tu quis es? quid dicis de te ipso? Ioannis. Capite. 1.*

Egungo Euangilio Sagraduan degu, Embajada adibat<sup>1</sup> eguiñ ziotena Judioac San Juan Bauptistari: Vidaldo izanzituzten bada Jerusalengo Corteic veren Sacerdoteac, eta Leuitac San Juan Bauptistarengana galdezera, eza zeñ zan, edo norzan: *Misserunt Iudei<sup>2</sup> ab Ierosolimis Sacerdotes, eta Leuitas ad Ioannem ut interrogarent eum, tu quis es?* Allegatuziraneean Embajadore abec San Juan Bauptistarengana, galdetucioten; Zu zeñzerade: *tu quis es?* Zerade Messias, érresponditu<sup>3</sup> zuen, ezala Messias: *Non sum Messias*; Zerade Christo? Ezez: *Non sum Christus*; ezala Christo; Zerade Profeta? ezez ezala Profeta: *non sum Profeta*; vada zer zerade? érresponditu zuen; Ni naiz Jangoicoaren voz bat: *ego sum vox*: etorri naizana auisazera pecadoreac, ezen eguiñ dezatela beren pecatuen penitencia; *penitentiam agite*, Zergatic allegazenda Jangoicoaren Juicio diuinoa, *apropinquabit enim regnum Caelorum*:

Pregunta au eguiñziotena San Juan Bauptistari Jerusalemgo<sup>4</sup> Enbajadoreac Phariseoac: *tu quis es?* Zu zeñ zerade? eguiñ bear ere diot nic nere auditorio onetaco Jende guztoi; eta ematecoz principioa, esatendit Jangoicoaren Magestadeac, vere Profeta Ezequielem<sup>5</sup> medioz; *ā Sanctuario meo incipite*; abiazecoz lendabicicoa Sacerdotea gandic; vaña abiaturaño lenago, escadiozagun aren Magestadeari vere gracia soberanoa, Amantissimaren<sup>6</sup> medioz Aiñgueruan salutacioarequiñ, esatendegula guztioc *Ave Maria*:

*Tu quis es? Ioannis. Capite 1.*

Ya que Jangoicoaren Magestadeac aguiñzen diran ezquero vere Profeta Ezequielem medioz: *ā Sanctuario meo incipite*, abiazecoz lendabicicoa Sacerdoteagandic eguitera San Juan Bauptistari eguiñzioten pregunta vra vera: *tu quis es?* Zu zeñ zerade, edo zer zerade? Abiazenaiz nere gandic:

*Tu quis es?* Jauna ni naiz Sacerdotea; zer dá izatea Sacerdotea? ērrespondizen digu Hugo Cardenalac: *Sacerdos, idem est, quod sacris datus*; Lo mismo da izatea Sacerdotea, nola izatea Consagratura Jangoicoaren gauzetalaracoz: Jaquiñ zazute nere Catholicoac, ezen Jangoicoaren Magestadeac examinatuco gaituela vere Juicio diuinoan, ea nola cumplitu degun [lat.] vacoizac vere estaduco obligacioaquiñ: Galdetuco dio Juicio diuino artan Jesu (Chris)toc gure Juezac, sacerdoteari: *quomodo intrasti? quomodo vixisti? quomodo rexisti?* Nola sartuciñaden aiñ dignitate andian? Nola vicituzera de estadu andi orretan? Eta nola cumplitu dezu zure obligacio andi orreQuiñ? Abec dirade preguntac, esatendu Aita San Agustiñec, eguiñgo diozcanā<sup>7</sup> (Chris)to Jesus diuinoac sacerdoteari:

*Quomodo intrasti?* Nola sartuciñaden dignidade andi orretan? Zer intencioarequiñ? Zer modutan? Zer fiñequeiñ? Zer meritoaquiñ? Zer medioaquiñ sartuziñaden aiñ estadu, eta oficio soberano andian? Onetaz guztiaz izangoda examinatua: Ó Sacerdoteac! Zer ērrespondituco dú, sartuzanac deitu vague Jangoicoac estadu andi orretara, solam(en)te pasazecoz viciza descansu gueagorequin? Zer ērrespondituco du sartuzanac, ez echecho Capellania galceagatic, eta echean Sacerdotebat izateagatic, vatere vocacione vague estadu andi orretaracoz? Veguira dezun<sup>8</sup> vacoizac nola sartuzan, eta valdiñ erratu vazan sarcea, cuidado, cuidado, eztidiñ erratu aterazea.

*Quomodo vixisti?* Nola vicituzera de estadu andi orretan aunque sartuagatic orretan vocacioarequiñ? Nola guiatu dituzu animac zure exemploarequiñ? Nola dirade virtuteac zeñequiñ edificatzenduen mundua? Zer da oracioaz, humildadeaz, pacienciaz, eta caridadeaz? *Quomodo vixisti?* Vada valdiñ ez solam(en)te ezpada virtuteric, sino es virtute en lequan, vicioac; ezpada exemplo onic, sino es gaistoac baizen: Zer Juicioa? Zer cargua echeretendio sacerdoteari? Ez solam(en)te emango dio contua Jangoicoari sacerdoteac vere pecatuaz, sino es orrez gañera, vere escandaloen medioz, eta vere vizi gaistoaren medioz, vere puebloac eguiñ dituen pecatu guztiaz, esantendu Aita S(a)n Juan Chrisostomoc: *Sacerdotes non solum pro suis, sed et pro omnium peccatis rationem reddituri sunt*:

*Quomodo vixisti?* Nola celebratu dituzu Aldareco misterio santuac? Solamente mezabat celebratuzuen sacerdote berri batec, eta meza au esanta emacion eritasun andibatec, eta ill zan, eta esanzuen Venerable Aita Maitru Abilac: *Asco darama zertaz eman contua Jangoicoari*: Zer contua eman beardegu guc an bestere mezaz? Zer ateradegu an bestere comunio santuz? Non dago disposicioa, eta preparacio<sup>9</sup> celebracecoz? Non, munduko ērretiroa? Non vizizaco garbitasuna? Ó zer cargua, eta ó zer contua escatuco digun (Chris)to Jesus diuinoac:

*Quomodo rexisti?* Ó sacerdotea! Zuri tocazenizaizun eraqustea obraz, eta Ivez salbacioco videa animai: Nola cumplitudezu obligacio orreguiñ? Ezpadaquizu, condenacen zera zergatic eztezun estudiacen; valdiñ vadaquizu, zergatic eztezu<sup>10</sup> eraqusten; eta valdiñ eraqusten vadezu, zergatic eztezu obrazan; Zer ērrespondituco degu Juicio diuino artan?

[2] *Quomodo rexisti?* Nola administratu zenduen Jesu (Chris)to Jau-naren Patrimonioa? Nola vzi izandu zenduen pobrea perecizen, nai izan ziñituela lenago sustentacea Jocoac, eta vicioac, ezen ez zure anai pobreac, daquizuna<sup>11</sup> dala, zure obligacio ematea pobreal, zure sustento honestoaz landara sobrazen zaizuna? *Quomodo rexisti?* Nola āiñ<sup>12</sup> guichi cuidazen dezu Jangoicoaren echecho decenciaz, cuidazen dezu zure echecho decenciaz, eta garbitasunaz an beste? Nola sufrituco du Jesu Christoc, corporale, eta purificadore etako ziquiñtasuna, cuchetan daucazun erropa zuriaren garbita-sunaren vistan? Eta nola sufrituco du, socaldeac egotea adornatuac, eta gueago cuidatuac, ezen ez ēlizaco Aldareac, eta ērretabloac? Ó zer Juicio rigurosoa, eta gogorra echeretendigun Sacerdote guztioi! Guazen oraiñ car-gu eguitera ezconduai, eta guraso familiacoai:

*Tu quis es?* Zu zeñ zerade galdetuco dizu Christo Jesus diuinoac vere Tribunale gogor artan: ērrespondituco dezu, Jauna, ni naiz ezcondua: *Quo-modo intrasti?* *Quomodo vixisti?* *Quomodo rexisti?* Nola sartuciñaden ma-trimoniario santuco estaduan? Zer intenciorequin? Zer fiñequin? Vazuec, esatendu San Juan Chrisostomoc, ezconzen dirala diruarequiñ, zergatic eztituz-tten examinacen zer virtuteac dituen Nouiac, sino es que examinazen dute zer azienda duen, zer ondasunac dituen, eta zer conueniencias dituen; vesteac ezconcen dirade, edertasunarequin, esatendu Aita S(a)n Ambrosioc: Veste bazuec ezconcendirade gusto, eta deleiteagatic, atenditu vague aiñ sacramen-tu andiaren fiñ eta motiuoa, esatendu Aita S(a)n Buenaventurac; Eta nola diraden aiñ pisuac estadu onetaco cargac, valdiñ ezpaditu deitu Jangoicoac estadu onetara, arquien dirade fuerzaric vague, eramateco estadu orretaco cargac, vizizen dirade eta pasazendute viziza guztiz tristea, disgusto aquiñ, zeloaquiuñ impacienciaquiuñ, Juramentuaquiuñ, maldicio aquiuñ, arriesgazen du-tela vatac, eta vesteac beren animen salbacioa; Zergatic? Zergatic ezituen deitu Jangoicoac eztadu<sup>13</sup> orretara sino es edertasuna<sup>14</sup>, amoreac, ondasunac, gustoac, eta deleiteac; eta zer izangoda ezcondendir aietaz por fuerza, eta veren vorondatean contra? Ó Nere Catholicoac, eta zer icusi bearco dezuten Jangoicoaren Juicio artan? Valdiñ erratu bazan vocacioa, suplibeza oraiñ paciencias, ez errazecoz gloriaco atea.

Gueago: *Quomodo vixisti?* Nola vicituzerade matrimonio santuan? Zer exemploa emandiozu<sup>15</sup> zure humeai, eta familiaco Jendeari? Patriarca Abrahanez hospedatu izandu zituenean iru Aiñgueru aiec, edo persona diuinoac, [2at.] Nai izanducion<sup>16</sup> eguitea Combitebat, eta esatendu escriptura sagraduac, ezen zar santua Patriarca Abraham<sup>17</sup> Joanzala lasterca Tabernacu-lora ausazera vere emaztea *Sara*, disponizian ogui bazuec: *festinauit Abraham in Tabernaculum ad Saram*; Joanzan lasterca ganadua zegoen lequa, eta escogitu zuen teneracho bat Combite artaracoz: *ad armentum cucurrit*; emancion criadubati, eta au Joanzan volazen zuen disponicera: *qui festinauit, et coxit illum*: Zerda au? Esaten du Origenes Doctoac: *ipse currit, vxor festinat, puer accelerat*; Abraham dijoa lasterca, vere emaztea<sup>18</sup> apresu-razendu vere pausoa, eta criadua dijoa lasterca volazenduela: Zerdá au? Zen izan beardu, esatendu Origenesec? Valdiñ vada diligentea Aita familiacoa hospedazen, eta seruizen Jangoicoa, nola izango dirade perezosoac, emaztea, eta criaduac? *Nullus piger in domo sapientis*:

O Aita familiacoac! Zertatic Jaiozenda anbeste pereza ērreceuizen Jan-goicoa, eta seruizen, nola duten zuen emazteac, vmeac, eta criaduac? Zerta-tic? Ez bestetatic sino que zuec zeraten perezosoac? Eman nazazute<sup>19</sup> con-

tua, esangodu Jesu Christoc, anbestere obra onez, nola eguiten eztitzten, zu zerala causa; Eman nazazu<sup>20</sup> contua, anbestere pecatuz nola eguiten dituzten zure exemplo gaistoa dala medio: Eman beza contua Herodiasec bere alabaren desembolturaz, icasi izanduzuena vere exemplo gaistoaren medioz: *quid potuit filia* (esatendu Aita San Ambrosioc) *de adultera matre discere, nisi damnum pudoris?* Eman bezate contua Aitac, eta Amac familietacoac, ez solam(en)te veren viciza gaistoaz, sino es ere bay, veren vmeen, eta criaduen costumbre gaistoaz, icasi zitzetenac, veren exemplo gaistoa zala medio: goazen carguric fuerte, eta espantoso enera:

*Quomodo rexisti?* Nola gouernatu izanduzinítuuen zure contura zeuden personac? Zer cuidado izanduzenuen Jaquiteaz nola viciciraden? Ateratu izandu ziraden Jethroren alabac vra ematera veren Aitaren ganaduac<sup>21</sup>; Eta echera izulzean alabac, galduetu izandu cion<sup>22</sup> cuidado andiarequiñ veren Aitac Jethroc: *Cur velocius venistis solito?* Zer izandu da au? Nola etorrice-tara<sup>23</sup> beste ocasioetan baño lasterrago? Eta Alabac ērresponditu zioten, ezen Moysesec libratu izandu zituela [3] Arzaien molestietatic, eta atreuimentu etatic, eta orregatica emanutzela aiñ laster buelta echera; eztezute ērreparazzen (esatendu Lipomano Doctoac,) Aita onen cuidado andiaz? Aiñ conta-tuac daucazqui vere alaben pausoac, ezen ērreparazendu oraiñ guichiago luzatzutela beste ocasioetan baño? Ò Aita Catholicoen confusioa! *boni Patrisfamilias est curare* (esatendu Lipomanoc) *si sedula sit familia in agendis: morarum quoque causas inquirere, maxime filiarum:* Zer ērrespondituco du Jangoicoaren Juicioan, Aitac eztaquienac noiz aterazen diraden echetic vere semeac, vere alabac, vere criaduac, eta criadac, eta noiz izulzen diraden? Zer ērrespondituco du gurasoarc icustenduena<sup>24</sup> etorcen vere semea, eta aun vere alaba gabaz deshoran, eta aberiguazen eztuena, aiñ berandu etorcearen causa, eta motiuoa? *Quomodo rexisti?* Indazu contua, zure vigilancia, eta cuidadoaren faltaz, zure semeac, zure alabac, zure criaduac, eta criadac eguiten dituzten culpac, eta pecatuac.

*Quomodo rexisti?* Zerda zelo, eta cuidado christiano artaz, zeñarequiñ bearzenduen cuidatu, ērreparatu, eta veguiratu, zeñec frequentazen, eta visitazen duen maiz zure echea, izanbide<sup>25</sup> aidea, izanbide compadrea, edo edozeiñ Izandidilla? Zer ērresponditucodu<sup>26</sup> Aitac, eta Amac sobera confiatu-ric vzizen dituztela veren alabac bacarric egun guztian echean, yá vere aidearequiñ, yá vere compadrearequiñ, yá vere ezagunarequiñ, eta yá ezcon-zeco dagoenarequiñ? Zeñec emango dio Jangoicoari contua abec eguiten dituzten pecatuaz? Zuc, zuc eman bearcodezu guraso gaistoa:

*Filia Populi mei Crudelis sicut struthio in deserto:* Dá nere Pueblo Alaba (esantendu Jangoicoaren Magestadeac) cruela chori Abestruza vezala: Zer crueldade dá au? esatendigu Job Santuac: *dereliquit oba sua in terra:* Dá chori Abestruza cruela, zergatic eztituen arraulza parazendituenac berozen, sino es que vzizen ditu lurrean erozeñec pisazecoz, edo osticazecoz: *Obluiscitur quod pes conculcit ea:* Eta eztu caso gueago eguiten aietaz, vere vmeac ez liraquen baño gueago: Ò Ama cruela, chori Abestruza bezala! Zure alaba vzizendezu vacarric echean, vidalzen dezu bacarric mendira egurra eguitera, hacienda goardazera, eta bidalzendezu mezetetara, vere onestidadea galzeco peligro andian atreuituren batengandic? Zer ērrespondituco dezu Jangoicoaren Juicio diuino artan?

[3at.] Gueago: chori Abestruz onetaz, escribizendu Bercorioc, ezen duela anbeste berotasun, ezen digerizen duela burnia; Eta zuec Aitac, eta

Amac digerizen dezute, zuen alabac eguitea nai dituzten gusto guztiac, ateracea naiduten guztiarequiñ, engalanazea, edo apañcea edertasunarequiñ, chanceazea mutillarequiñ, engalanazea, edo apañcea edertasunarequiñ, chanceazea mutillarequiñ, eta danzazea? Eta digerizendituzute, eta sufricen dituzte Yerro<sup>27</sup> abec guztiac, edo falta abec guztiac? Ó Abestruzaren berotasuna, chori inmundoa, edo liquisa, zeña apartazen du Jangoicoaren Magestadec vere Aldare etatic, eta Sacrificio etatic! Jangoicoaren Juicioan eguiñgo zaizu cargu andia gurasoa, zure omissioa, eta descuidoa dala medio zure vmeac eguiñ dituzten pecatu guztiaz, eta izandu dituzten vicio, eta costumbre gaisto guztiaz, ala esatendu Aita San Ambrosioc: *ad negligentiam Patris refertur disolutio filiorum:*

*Quomodo rexisti?* Non dá zure vmeai eraquisi ziñon<sup>28</sup> doctrina? Non desenbolturen, eta falten ērreprensioa, eta castigua? Ó Dauden pobrea, eta tristea, valdiñ ezpazuen eguiñ vere omissioen, eta descuidoen penitencia! Beguirazaiozute vere seme Adoniasi: Yá<sup>29</sup> naidu alchatu vere Aitaren ērreinarequiñ: *Ego regnabo:* Yá tratazen du Joabequiñ conseguizeco moduaz; Yá eguiten ditu carro triunfal guztiz magestuoso bazuec, eta daramazqui vere aiziñean berrogueita amar guizon: eta Dauidec zer eguitendu iqusiaz bere semean gauza auec guztiac? Zegoen ichillic, siquiera Iz ērrepensioco bat eman bague: *Nec corripuit eum Pater suus aliquando dicens: quare hoc fecisti?* Ó Dauden pobrea, eta tristea, valdiñ ezpazuen eguiñ penitencia! Ó familiaco Aitarén pobrea, eta tristea, ezpadiñ<sup>30</sup> baditu corregizen, castigazen, eta ērreprendizen vere vmean excesoac, eta vere criaduen eta echecho excesoac? Zergatic arquitucoda conuencitua Jangoicoaren Juicioan, izan bague zer ērresponditu: *quid respondeam ad arguentem me;* esatendu Profeta abaquque<sup>31</sup>: Adi bezate gurasoac exemplo au:

Escriuizendu Enrike Granec, ezen Izanduzala ciudadre Jubican Alemanian cauallero bat autoridade eta aguiñze andicoa, zeña izanduzan consul, eta guztiz aberasa: Izandu zituen onec Iru seme, Jaio izanziozciona<sup>32</sup> erdize batean; abetatic bata Illzan lepraz beteric; bestea Itoric, eta Irugarrena, oraiñ Iqusico degun bezala. Azi izandu zituen, cuidado gueagorequiñ vzizecoz aberasac, ezen ez virtuosoac: Eman izanzion<sup>33</sup> abei Maisua gueago autoridadeaz, eta puntuaz, ezen ez doctrinaz [4] permititu bague, eta vzibague Maisuari Iquzea bere semeanca aun erropan ere; orrequiñ ateraziraden guztiz libertade andicoac, erregalatuac, disolutoac, viciosoac, eta costumbre gaistocoac: Illziraden viac, eta andic vereala Aita, gueldizen zala Irugarrena, vere Amaren cuchillozat, zeñac deseazen zuela vere semeanca ona, ematenciozcan conseju onac; vaña semeanca losaric vague, despreciazen zituen vere Amaren conseju onac: Artu zuen vere Aitac vzision haziendaren partea, eta beste seme Prodigoac bezala, gastatu izanduzuen emaqume gaistoakuiñ, eta galduaquiñ, especialidadearequiñ, vatequiñ, zeñarequiñ artuzuen amistadea; Onequiñ denbora guicheren<sup>34</sup> buruan guelditu zan aïñ pobre, zeñean izanduzizaion preciso, eta necesario ibillzea atez ate vere aide en eche etan, emanziozaten pedazubat ogui zerequiñ sustentatu, Izandu bague consejuac, promesac, amenazac vastante apartazecoz emaqume arrengadic:

Vere Ama onac eziñ sufrituric alaco infamia vere semean, socorritu izanduzuen anizetan, cantidade anizequiñ, vaña vereala gastazen zituen vere mancebarequiñ, zeñac incitazen zuen escazeceoz vere amari, gueago, eta gueago: Egun batean escatucion vere amari cantidade bat, eta amac vcatucion; Eta seme gaisto onec zer eguiñ zuen, botatuzuen vere ama lurrera,

arrancatu zuen ezpata, eta paraturic vere oña, vere amaren lepoaren gañean, eta paraturic ezpata vere amaren gargantán, amenazatu izandu zuen erioza-requiñ, valdiñ ezbacion ematen escazencion cantidadea: Señora afluxitu onec ērrescatazeagatic vere vicia, eman izancion escatucion cantidadea, eta Joanzan arequiñ vere emaqume gaisto aren gana: Ezan guelditu emen mutil gaisto onen desbaratoa, zergatic laster despachatu zuen, amac emanciona; eta determinatu zuen salcea vere mancebaren soñecoac ez illzecoz goseaz: eta acabazen zuela abequiñ, vere perdicioco azqueneco ērrematezat, eraman izanduzuen, vere manceba, edo emaqume gaisto vra, emaqume gaistoen eche publicora erabaztecoz vere corpuzarequiñ, Jangoicoaren ofensaquiñ, ogui pedazu bat zer Jan ezezaten<sup>35</sup> perecitu goseaz: An arquituzan guztiaz<sup>36</sup> desamparatura, pobrea, deshonrratua, aideric bague, adisquieric vague, consueloric bague, eta personaric izan bague zeñi izuli beguiac, eta miseria andiaz, erituzan eritasun andibatez lequ infame gaisto artan.

[4at.] En fin arquizen zala guztia desdichas<sup>37</sup>, eta miseriaz beteric, Izuli bearzuenean Jangoicoagana vioz guztiaz, vada oraiñdic echeretencion aren Magestade diuinoac vere misericordia andiarequiñ; etorriaz deseazera vere buruari erioza, eta arquizen ezuela norc eman, determinatu zuen arcea bere escu propioaz; vzizue<sup>38</sup> onetaraco vere emaqume vra aposentoan, eta sarzen zala bacarric patio batean, artuzuen cuchillobat, eta sartu izandu zuen bere pechutic: Dolorearen fuerzarequiñ, eman izandu zuen deadar andibat, acuditu izanduzuen vereala, vere manceba, edo emaqume gaisto arc, eta burutic jauciak bezala, abiato zan deadar andiac ematera: Erroidura allegatu zan vecindadeco Jendea, zegoenean yá desdichadu vra espirazen, Iquisi zuten guztiac Illzen herege bat bezala, errebolcaturic vere odolean, penitenciaco señaleric vatere eman bague: Allegatu zan noticia au, vere ama tristeagana, Joanzan vere aideaquiñ, vere vioz guztia pasaturic dolore andiaz, negar eguiten zuela vere desdichaz; An maldecitu zituen ērregaloac, eta libertadea, zeñaquiñ azi Izanduzuen; baña zeñ berandu erorizan contuan, yá ērremedioric ezan denboran: Enterratu zuten desdichadu au campoan, guizon desesperatua, eta condenatua bezala, baña aun ez lurrac naizuen sufritu, zergatic lurrac alchaturic botazen zuen beregandic campora, aliqueta corrumpitu zan artean guztia, causaciencia<sup>39</sup> gende guztiai admiracio, eta vlldur andia.

Ó valdiñ escarmentu onetan, Icasten baluteque gurasoac azizen veren vmeac, Jangoicoaren vlldur santuan, ezletozquen desdicha andi abetara! Veguira zazute gurasoac, zuen crianzatic dependizendu, ērrepublicaco on guztia; Zergatic Izatetic vmeac onac, eta ondo aziac, etorzedirade<sup>40</sup> Izatera, sacerdote onac, religioso onac, Alcate onac, ērregidore onac, ezcondu onac, eta erozeiñ oficio etan dirade onac: Orregatic Izango<sup>41</sup> guztiz terriblea zuenzat Juicio diuinoa, valdiñ ezbapaditzute azizen virtutean, eta Jangoicoaren vlldur santuan; Zergatic eguiñgo zaizute cargu andia, zuen vmeen desordenaz, vicioaz, eta pecatuaz; eta ala abiato berealache egungo egunetic zuen vme en crianza onean, contu andia arzen diozutela<sup>42</sup> nola dabillzan, zer pausotan, zer amistade duten, noiz gabaz echera etorcen diraden, zuec Izaten zeratela lendabicicoac exemplo onean; eta zuec vmeac cuidado Izatea zuen gurasoien obediencia andicoac, nai ezbadezute esperimentatu Jangoicoaren castigu andia: Eta oraiñ faltatudezutenac aren Magestade diuinoaren contra: Esanzazute vioz guztiaz: Nere Jesu(chris)to Januna &<sup>a</sup>=

## 4. testua



*Sermon del Quarto Dom(ing)o de Adbiento<sup>1</sup>:  
Praedicans Bauptismum Paenitentiae: Parate viam Domini: Lucae.  
Capite 3.*

Caminanteac, caminazen dezutenac mundu miserable onetaco Desier-toan barrena, zeruco ciudate artara, lecu eder artara, zer eguiten dezute detenituric videan, vada Ichizenda atea Illunzendanean: *Ambulate dum lucem habetis, vt non vos tenebrae comprehendant*: Pasajeroac eternidade artara, denboraco videtic, Jaquiñazute, ezen eguna dala laburra: *breui viuens tempore*; eta Jornada guztiz lucea: *Grandis tibi restat via*: Vada nola zaudete lotan pecatuco, eta vicioco oazean? Etorrico dá eriozaco arrasa, edo gabá, zeñean erratuco dezute videa, eta emango dezute Infernuco des-peñaderoan: *Venit nox quando nemo potest operari*: Aprouechazaitezte<sup>2</sup> Catholicoa, denbora presenteco onetaz, vada vizizaco denbora, dá denbora penitenciaracoa; Orregatic egun Precursore diuino San Juan Baupertistac esatendigu guztioi, disponidizagula, preparadizagula eta garbidizagula gure concienciak, erreceuizeco<sup>3</sup> gure viozeta gure Jesus diuinoa: *parate viam Domini, rectas facite semitas eius*; eguiten degula gure pecatu guztien penitencia: *Praedicans Bauptismum paenitentiae*

Pecadore adizen nazuna, Naizu allegatu zeruco gloria soberano artara? Vada negar eguzu zure pecatuaz mundu onetan, eguzu penitencia zure culpa guztiaz: Naizu ez galdu eternidadeco felicidade vra? Naizu salbatu? Esango dezu, ezen baiez; Vada nola vzizendezu denbora Jangoicoac ematen dizuna pasazen, zure pecatuen penitencia eguiñ bague? *penitentiam<sup>4</sup> agite*: Errazen dezu catholicoa; Vizizaco denbora, dá denbora negar eguiteco, ezta ez, irri eguiteco Jangoicoaren ofensetan: Negar eguzu emen zure pecatuaz, penitencia eguzu emen guztiaz, guero alegrazaitezen eternidade guztiaz:

Beguirazazu Catholicoa, ezen ematendizula oraiñ Jangoicoac denbora, vzizeco pecatuac, zure culpen penitencia eguiteco, ematen dizu espaciao confesio onbat eguiteco: Ó nere Jesus piadosoa, eta misericordiosoa, eta zer beneficio andia dan au! Valdiñ v(ere)<sup>5</sup> Magestade diuinoac quendu izan bacion vicia San Pe(dr)or*i*<sup>6</sup>, iru aldiz vcatu izan zuenean [lat.] vere Maisu diuinoa: Valdiñ quendu izan bacion San Pablori vicia, zijoanean perseguizera christauac; Valdiñ quendu izan bacion Magdalenari, vere dishonestida-deetan<sup>7</sup> sarturic zegoenean; eta San Agustiñi, vere torpeza eta erroren artean; (Vrbillago;) Zuri adizen nazuna, valdiñ quendu izan bazizun Jangoicoaren Magestadeac vicia, pecatu mortal ori eguiñ zenuenean vereala; Valdiñ azo ill baldiñ baciña<sup>8</sup>, egun arrepentitu baño lenago; zer izango zan ayetaz, eta zuzaz? Ó eta zenbat dauden pena, eta tormentu andi ayetan, zure pecatuac baño guichiago gatic! Eta zuri emandizu Jangoicoac denbora, zeña<sup>9</sup> vere Juicio diuino ocultoaz, vcatucion<sup>10</sup> ayey; Zertaco izango da? Zertaco izan beardu ematea zuri denbora, sino es vzizeco<sup>11</sup> zuc Jangoicoaren ofensa oriec, eguitecoz zure pecatuen penitencia, disponizecoz zure anima triste ori ondo, deizen dizunecoz vere tribunal<sup>12</sup> diuino artara; eta ematecoz graciak beneficio, eta fauore diuino andi orretaz; ala esantendigu San Juan Chrisostomoc: *multum pecasti, iam desiste, ete in contrarium reuertere; Deo age gratias, quod te non in mediis rapuit pecatis*: Orretaraco ematen dizu Jangoicoac,

ematen dizun denbora: Zer ērrespondizen diozu oni pecadorea? Deshonestoa, Juradorea, maldicientea, murmuradorea? Zuc nai eztiozuna barcatu zure esaiari, zuc nai eztezuna vzi ocasio torpe liquis deshonestoa, zer esaten-dezu, eta erresondizen dezu?

Zer ērresponditu beardezu? ērrespuestaric onena izango dā egungo egunetic abiazera<sup>13</sup> verealache eguitera gure pecatu guztien penitencia, ala esatendigu Precursore diuino S(a)n Juan Bauptistac egungo Euangilio Sagraduan: *Praedicans Bauptismum Paenitentiae*: Abiazera disponizera, eta preparacera gure animac; *parate viam Domini*, ērreceuizecoz gure Jesus diuinoa gure viozeten, garbitasun andiarequiñ confesio on baten medioz, vziric pecatuco ocasio guztiac, orreQuiñ beteco ditu gure animac vere gracia soberanoaz, au necesitazen det, escadiozagun Ama Santissimaren medioz Aiñgueruaren salutacioarequiñ, esaten degula guztioc: *Ave Maria*=

#### V. Defunción<sup>15</sup>

*Praedicans (Bau)ptismun<sup>14</sup> Paenitentiae Parate viam (Do)mini<sup>15</sup>. Lucae. Capite 3.*

Christaua, adizen nazuena<sup>16</sup>; pecatu dezu mortalmente? [2] Vada valdiñ pecatu badezu mortalm(en)te Itozen zaude vrarequiñ aboan, zure condencioco betico peligroan; Naizu ateratu miseria orretatic, eta peligro orretatic? Naizu, ez Ito beticoz? Vada misericordia diuinoac ofrecizen dizu tabla bat, edo ol bat, zeñetan aseguradezazun, zure vicia eta au dā penitencia, deitzion bezala Concilio Tridentinoac: *Secundam post naufragium desperitae gratiae tabulam*: Ezta, eta ez izandu dā, beste medioric salbazecoz, cometituzuenac, edo eguiñ zuenac pecatu mortala, sino es, vere pecatuaren penitencia:

Adidazu Christaua egua au: Valdiñ pecatu badezu mortalm(en)te, ezitzu barcatuco Jangoicoaren Magestadeac, valdiñ ezpadetu damu vioz guztiaz, dolore eguiazcobat ofenditura aren Magestade diuinoa, eta ezpadetu propositu firmebat ez izulzeco berriz ofendicera: Ezta medioric, esatendu Aita Santo Thomas de Villanuevac; pecatu dezu? Vada, edo arrepentitu beardezu pecatu eguiñ dezunaz, confesazen dezula dolore andiarequiñ; edo condenatu beardezu: *pecauimus fratres; paenitendum est, aut ardendum;* Ezta medioric esatendu egua eternoac Jesu (Chris)to Jaunac, edo eguiñ penitencia, edo perecitu seculaco: *Nisi paenitentiam egeritis, omnes similiter peribitis*: Ezta medioric Juradorea, ezta medioric vengatiuoa, ezta medioric deshonestoa, ezta medioric murmuradorea: pecadorea erozeiñ zerala, ezta medioric, edo confesatu damu andiarequiñ zure pecatuac, edo erré Infernuestan Eternidade guztian: *paenitendum est, aut ardendum*.

Iqusten dezu yá Catholicoa, zeñ necesario dan zure pecatuen penitencia, eta pecatu ezquiero, eztala beste medioric salbazecoz: Esan nazazu zuc oraiñ; Naizu Jangoicoac inventadezan zurezat beste medioren bat zerura igozecoz? Naizu Idiqui dezan beste vide berriren bat zure salbacionaco? Claro esta ezen ezez, vada zerade Catholicoa; Bada zer naizu? Vziza perizizen<sup>17</sup>, eta condenacea beticoz? Eztsa<sup>18</sup>; Vada zer naizu, zergatic ezta medioric Iquisi dezun bezala; edo confesatu beardezu alquez Vzizenduen pecatu ori, edo Joan beardezu Infernu etara confesazera Luciferri; edo ērrestitucio eguiñ beardezu, eguiñ dezaquezula ebassi dezunaz, edo condenatu beardezu; edo apartatu [2at.] beardezu ocasio proximotic, edo amance-

bamentutic, edo Izañ beardezu betico Demonioaren esclauoa; edo barcatu beardiozu vioz guztiaz agraui oguin zizunari, edo egon bearcodezu errezen Infernu etan eternidade guztian; Gauza fuertea por cierto! Eztala medioric? Desengaña zaitez ezen eztala.

Beguirea zazu oraiñ, estremo abetatic vietatic, zeñ escogizen dezun: Escogizen det, esaten dezu, confesazea, apartacea pecatuko ocasiotic, eta barcacea, baña ez oraiñ; Vada noiz? guero: Ó guero! Eta zenbat daucaz-quizun Infernu etan! Ó guero! Infelicidade en, eta desdicha guztien aziá! Ó nola negar eguiten zuen, vere personaz Aita San Agustiñec<sup>19</sup> *diferens dicebam; modó, ecce modó, sine paululum; sed modó, et non habebam modum;* sentizen zuen entendimentu andi arc, Jangoicoac vere viozean ematen zioz-can golpeac, eta abisuac, alchazidiñ vere errore etatic, eta pecatuetatic; *Surge qui dormis, et exurge à mortuis:* Eguitencion fuerza Agustinori eguiac, eta ezala atreuizen esatea ezez, ērrespondizen zion Jangoicoari, ezen guero; Viziziozala piscabat vere pecatu etan: *Sine paululum:* Vaña Ó! esatendu Agustinoc: *Sine paululum, in longum ibat:* Ó zeñ luce cijoan guero au! O zer aniz cijoan onetan, zala aiñ guichi nic escazen nuena! Onelachen guero damuzen zizaion Santu oni luzatu izandua vere conuersioa:

Dá posible christaua, ezen arquizen zerala aiñ ondo Demonioarequiñ? Aiñ amablea da orren compañía eta aun esclauitudea, ezen nai eztezuna<sup>20</sup> oraiñ ateratu orrengandic, eta vzizen dezu guerocoz? Valdiñ bazeundeque ziñituqueala corpuean milloibat Demonio; vzicozinduque guerocoz elizaco diligenciac aterazecoz Demonioriec<sup>21</sup> guztioc zure corpuzetic? Ya se ve, ezen ezez: Eta aterazecoz, eta botazecoz zure animatic, bada or daude pecatu mortala dala medioz<sup>22</sup>, esatendezu, *guero guero?*

Adizazu Profeta Santu Dauid pintazen, zure Ichutasuna: *Ecce mensurabiles posuisti dies meos, et substantia mea tamquam nihilum ante te:* Ezaguzen det, Jauna, ondo, esatencion Jangoicoaren Magestadeari Profeta onec, ezaguzen det ondo, ezen naizala vere Magestadearen aiziñean, ezerez bat; vadaquit Jauna ezen dutela tassa, eta [3] neurria vizi bear ditudan egunac: *Ecce mensurabiles posuisti dies meos:* Eta au berau ezaguzendet beste persona guztietan: Eztezu ordu segururic Catholicoa, eztaquizu noiz deituko dizun Jangoicoaren Magestadeac vere Tribunale diuinora: *Nescitis qua hora Dominus vester venturus sit:* Bada Christaua ezzapeadezu ordu segururic eztezun vezala, eztezazula nai vzi gueroco<sup>23</sup> eguitea zure pecatuen penitencia; eztezazula nai vzi ez guerocoz conuerticea: *Ne tardes conuerti ad Dominum;* Ez luzatu ez egunetic egunera Izulcea vioz guztiaz zure Jangoico maiteagana: *Ne differas de die in diem conuerti ad Dominum;* Zergatic guichiena pensazen dezunean etorricoda zure anima tristearen gañean Jangoicoaren ira, eta indignacioa: *Subito enim veniet ira illius:*

